

Kudeaketa, Plangintza, Legeria eta Deontologia



Ikasle Kaiera

Laura Saenz del Burgo

Gustavo Puras



AURKIBIDEA

1. Irakasgaia. Non kokatzen da ERAGIN proiektua	
a) Irakasgaiaren datu orokorrak	3
b) Irakasgaiaren irakaskuntza tipologia	3
c) Irakasgaiaren helburu orokorra	3
d) Gai-zerrenda teoriko eta praktikoa	4
2. Zer da ERAGIN? Metodologia. Taldekatzeak	8
3. Ebaluazio eta kalifikazio irizpideak	10
4. Hasierako egoera	
a) Hasierako egoera definitzen duen galdera	12
b) Arazoaren egoera	12
c) Haria	12
5. Jardueren sekuentzia	14
5.1. Lehen korapiloa	
a) 1. Korapiloaren jatorrizko galdera	14
b) Korapiloaren egoera	14
c) Ikaskuntza baliabideak	14
d) Jardueren sekuentzia	15
5.2. Bigarren korapiloa	
a) 2. Korapiloaren jatorrizko galdera	20
b) Korapiloaren egoera	20
c) Ikaskuntza baliabideak	20
d) Jardueren sekuentzia	20
5.1. Hirugarren korapiloa	
a) 3. Korapiloaren jatorrizko galdera	32
b) Korapiloaren egoera	32
c) Ikaskuntza baliabideak	32
d) Jardueren sekuentzia	32
5.1. Laugarren korapiloa	
a) 4. Korapiloaren jatorrizko galdera	46
b) Korapiloaren egoera	46
c) Ikaskuntza baliabideak	46
d) Jardueren sekuentzia	46
6. Klaseen kronograma	56
7. Metodologia aktiboak lantzeko erabiliko den denbora presentziala zein ez-presentziala	58
8. Ebaluatzeko entregagai, jardura eta auto-ebaluazioen zerrenda	59
9. Entregagaien edota ebaluatzen diren jardueren kronograma	61
10. Eranskinen zerrenda	62
11. Eranskinak	64

Kudeaketa, Plangintza Legeria eta Deontologia

1. IRAKASGAIA. NON KOKATZEN DA ERAGIN PROIEKTUA

a) Irakasgaiaren datu orokorrak

Irakasgaiaren izena: Kudeaketa, Plangintza, Legeria eta Deontologia

Titulazioa: Farmazia Gradua

Ikasturtea: 4. Maila

Lauhilabetea: bigarrena

Kreditu kopurua: guztira 7 kreditu, horietatik 4 kreditu teorikoak dira eta 3 kreditu praktikoak, ikasgelako praktikak (0,8 ECTS) eta ordenagailukoak (2,2 ECTS) barnean hartuta.

Irakasgai hau 2013/2014 ikasturtean sortu zen, bi irakasgai independenteren elkarketaren ondorioz: alde batetik Kudeaketa eta Legeria eta beste alde batetik, Legeria eta Deontologiaren.

Farmaziako Gradua 8 moduluz osatuta dago eta Kudeaketa, Plangintza, Legeria eta Deontologia irakasgaia M06 (Legeria eta Gizarte Farmazia) moduluaren barne aurkitzen da Osasun Publiko irakasgaiarekin batera.

b) Irakasgaiaren irakaskuntza tipologia

Mota	Ordu presentzialak	Ordu ez presentzialak	Guztira
Ikasgelako orduak	48	85	133
Ordenagailuko praktikak	22	20	42
Guztira	70	105	175

c) Irakasgaiaren helburu orokorra:

Irakasgai honetan, farmazia-bulegoa modu egokian kudeatzeko beharrezkoak diren kontzeptu desberdinak erabili behar izango dituzue. Horretarako, marketing, kontabilitate, stock-aren kontrola, erosketen eta salmenten kudeaketa, etabarrekin erlazionatutako kontzeptu desberdinak landuko dituzue. Guzti hau osasun publikoarentzat interesa eta kudeaketa pribatua duen establezimendua den farmazia-bulegoan gehienezko errentagarritasuna lortzeko helburuarekin, beti bere funtzionamenduaren arau eta legeak errespetatuz.

Beste alde batetik, lan esparru desberdinetan jarduera farmazeutikoarekin erlazionatutako oinarritzko kontzeptu batzuk eskuratuko dituzue, horien artean, industria farmazeutikoan, komunitateko farmazian, espezialitate desberdinetan (ospitaleko-farmazia, analisi klinikoak, etab.) eta era berean, hezkuntza eta ikerkuntza arloetan. Jarduera guzti hauek, jarduera horiek zuzentzen dituzten arau eta legeak betez eta diziplina anitzeko osasun sistema baten printzipio etiko eta deontologikoak erabiliz egin beharko dituzue.

Irakasgai honetan ikasitako eduki asko erabili ahal izango dituzue hurrengo urtean egin beharreko gradu amaierako lan eta praktika tutelatuetan.

Irakasgaiaren helburu orokorra komunitateko farmaziaren, ospitaleko-farmaziaren, industria farmazeutikoaren eta banaketa farmazeutikoaren plangintza eta kudeaketa eragin zuzena duten osasun legeriaren alderdi desberdinak ezagutzea eta ulertzea da.

d) Gai-zerrenda teoriko eta praktikoa:

KUDEAKETA ETA PLANGINTZA

I. Modulua: ENPRESA

1. Enpresa kontzeptua. Merkataritza eta enpresa jardueren bilakaera historikoa. Enpresa antolaketa. Enpresa ingurunea. Enpresa kudeaketa eta plangintza.
2. Farmazia –bulegoa enpresa bezala: Definizioa, asmoa eta helburuak. Funtzio eta egituraren bilakaera. Inbertsioa eta alderdi fiskalak. Merkatu farmazeutikoa.

II. Modulua: FARMAZIA –BULEGOAREN KUDEAKETA ETA PLANGINTZA

3. Marketing eta merchandising-a. Kontzeptua. Marketing-eko elementuak. Marketingaren plangintza eta kudeaketa.
4. Kudeaketa ekonomiko-finantzaria. Kontabilitatea. Egoeraren balantzea. Eraitzen kontua.
5. Medikamentuaren prezioa. Medikamentuen prezioen sistema. Biltegien eta farmazia –bulegoen marjinak. Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta baliokidetasun erreargua (BE).
6. Erosketen kudeaketa. Hornitzaileen aukeraketa. Onuren gaineko ondorioak. Onuraren marjina. Beherapen eta hobariak. Eskaera egin aurretik eta erosteko momentuan kontutan izan beharreko faktoreak.
7. Stock-aren kudeaketa. Izakinak. Erosketa lote hobezinaren adierazleak. ABC sailkapena.

III. Modulua. LEHEN ARRETA ETA ARRETA ESPEZIALIZATUAREN KUDEAKETA ETA PLANGINTZA

8. Kudeaketa eta plangintza lehen arreta eta arreta espezializatuan. Medikamentuen aukeraketarako prozesua. Hornitzaileen eta dispentsazioaren kudeaketa.

IV. Modulua. BANAKETAREN ETA INDUSTRIA FARMAZEUTIKOAREN KUDEAKETA ETA PLANGINTZA

9. Banaketaren kudeaketa eta plangintza. Banaketa farmazeutikoaren ezaugarri eta funtzioak. Biltegi farmazeutikoak.

10. Industria farmazeutikoaren kudeaketa eta plangintza. Kudeaketa logistikoa eta ekoizpen kudeaketa. Kalitatearen kudeaketa. Marketingaren kudeaketa.

LEGERIA ETA DEONTOLOGIA

I. Modulua. FARMAZIA ETA OSASUN ANTOLAKETA ETA LEGERIA

11. Legeria farmazeutikorako sarrera: kontzeptua eta edukia. Oinarrizko farmazia eta osasun legeria.

12. Osasun Sistema Nazionala. Automia, Estatu eta Europear mailako osasun erakunde eta antolaketa.

II. Modulua. HEZIKETA ETA JARDUERA PROFESIONALAK

13. Farmazilaria irakaskuntzan eta ikerketan.

14. Farmazilari espezializatua.

III. Modulua. OSASUN MEDIKAMENTU ETA PRODUKTUAK

15. Osasun medikamentu eta produktuak. Kontzeptuak eta erlazionatutako ête gin ía .

16. Prestazio farmazeutikoa. Mediku errezeta. Preskripzio eta dispentsazioarako baldintzak.

17. Medikamentuei buruzko informazioa eta promozioa.

IV. Modulua. ERREGULAZIO FARMAZEUTIKOA

18. Farmazia -bulego eta botikinen arauketa eta funtzionamendua.

19. Medikamentuen erregistroa.

V. Modulua. DEONTOLOGIA

20. Farmazilarien ête gin ía eta erantzunkizuna.

Gai hauen zati handienak ERAGIN programaren parte dira eta horregatik metodologia aktiboak erabiliz irakatsiko dira, batez ere Arazoetan Oinarritutako Irakaskuntza (AOI), baina puzzleak, GPS (*Guided Problem Solving*) edo kliker-ak ere erabiliko dira. Ondorengo taulan ERAGIN programaren parte diren gaiak agertzen dira.

	GAIAREN ZENBAKIA	DESKRIBAPENA	IRAKATSIKO DEN ORDEN BERRIA
1. KORAPILOA	T13	Farmazilaria irakaskuntzan eta ikerketan	1
	T14	Farmazilari espezialista	
2. KORAPILOA	T15	Osasun medikamentu eta produktuak	2
	T16	Prestazio farmazeutikoa	3
3. KORAPILOA	T3	Marketing eta merchandising-a	4
4. KORAPILOA	T4	Kudeaketa ekonomiko-finantzaria	6
	T5	Medikamentuen prezioa	5
	T6	Erosketen kudeaketa	
	T7	Stock-aren kudeaketa	

Gainontzeko gaiak "ohiko irakaskuntza" bezala mantenduko dira, ERAGINetik kanpo. Gai hauek irakasle on irizpideen arabera tartekatzen joango gara aurrerago ikasturteko kronograman agertzen den bezala. Nolanahi ere, AOI metodologiak lehenengo egunetatik sartuko ditugu.

GAIAREN ZENBAKIA	DESKRIBAPENA
T1	Enpresa kontzeptua
T2	Farmazia-bulegoa enpresa bezala
T11	Legeria farmazeutikorako sarrera
T12	Osasun Sistema Nazionala
T8	Lehen arreta eta arreta espezializatuaren kudeaketa eta plangintza
T9	Banaketa kudeaketa eta plangintza
T10	Industria farmazeutikoaren kudeaketa eta plangintza
T17	Medikamentuei buruzko informazioa eta promozioa
T18	Farmazia-bulegoa eta botikinen arauak eta funtzionamendua
T19	Medikamentuen erregistroa
T20	Farmazilarien deontologia eta erantzunkizuna

Gelako praktikak: Atal honetan, ête magistraletan ikusitako hainbat gairen (eskaintzen analisia, egoeraren balantzea, emaitzen ebaluazioa eta medikamentuaren prezioa) eduki teorikoei buruzko ariketa praktikoak egingo ditugu.

Ordenagailu praktikak. Atal honetan, eta ordenagailu gelan dauden programen laguntzarekin, ondorengo praktikak egingo ditugu:

- 1. praktika.** Rol jokua.
- 2. praktika.** Marketinga eta Merchandisinga.
- 3. praktika.** Farmazia-bulego baten irekitze prozesua.
- 4. praktika.** Praktika honetan, ête gin erkidego desberdinetako farmazia zerbitzuak erregulatzeko dituen legeria bilatu behar izango duzue (Ordenazio Farmazeutikoa).
- 5. praktika.** Formula magistralen balioztatzea.
- 6. praktika.** Eztabaida. Legeriarekin erlazionatutako kontzeptu bati buruzko hasierako gai bat proposatuko zaizue eta zuen iritzia, abantailak, desabantailak, etab adierazi behar izango dituzue.

2. ZER DA ERAGIN? METODOLOGIA. TALDEKATZEAK

2015-16 ikasturtetik aurrera, programaren parte nagusi baten garapenerako, metodologia aktiboak erabiliko dira, batez ere AOI, baina era berean, elkarlaneko jarduerak egingo dira, adibidez Aronson puzzlean edo GPSan (*Guided Problem Solving*) oinarritutako irakaskuntzak erabiliz. Azken hauen ezaugarri bereizgarriak ikasgelan erabili behar direnean azalduko dira.

AOIrekin lortu nahi dena da ikasleak gai izatea beraien etorkizun profesionalean biziko duten hurbileko hasierako egoera baten aurrean arazo edo egoera horri aurre egiteko behar izango duten informazioa aurkitzen, hau da, irakaskuntzaren behar eta helburuak ezagutzera. Behin ezagutu eta gero, beharrezkoa izango da informazioa bilatzea eta barneratzea eta era berean, informazio hori egoera jakin batzuetara aplikatzea modu ête gin baten, baina beti ikaslearen ikaskuntza jarraia erraztuko duen irakasleak bideratutako laguntzarekin.

Irakaskuntza jardueraren garapena ohiko eran egin beharrean, ête gin ía honekin, irakasleak ez du gero erabili daitekeen ête g bat azaltzen, baizik eta ikaslea da lehen ikasgai magistralean azaltzen zen ête g bilatu eta ulertu behar duena, ezezaguna den egoera hori ebatzi ahal izateko.

Ikasturtean zehar proposatutako jarduera gehienetan ikasleak hiru pertsonako talde finkoetan lan egingo duzue. Talde hauek lehenengo klase egunean modu aske batean egingo dira, beti ere kontutan izanda beharrezkoa dela taldeko kideek ordutegien bateragarritasuna izatea, talde lanak klase orduetatik kanpo egin, eta horrela, modu eroso eta eraginkor batean ête gin ahal izateko. Jarduera zehatz batzuetan edo praktketan, ohiko taldeak ez direnak sortuko dituzue, eta horrela, ohiko talde horietan egindako lan jarraiaren ondorioz lortutako gaitasun eta trebetasunak erabili ahal izango dituzue. Taldekide bakoitzak bere ohiko taldearekin eduki behar duen konpromisoa maximoa izan behar da, banakako notaren ehuneko portzentaje handi bat taldeetan elkarlanean egingo dituzuen zereginen arabera izango baita. Talde bakoitzak egin beharreko lehenengo gauza bilera bat egitea da: elkar ezagutzeko (bakoitzaren sendotasun eta ahuldadeak) eta bakoitzaren itxaropenak ezagutzeko (adb. Nota jakin bat ateratzea). Gerta daiteke zuen arteko itxaropenak ez izatea berdinak, eta again, taldean aldaketak egitea komenigarria izango litzateke, taldearen funtzionamenduaren (epeak ête, kalitate oneko lanak egin, bileretara joan, taldekideei lagundu, taldeari eman, zereginen bidezko banaketa, errespetua, etab.) arauak finkatzeko.

Lana ia egunerokoa izan behar da, arazo baten barnean proposatzen diren zereginak elkarrekin erlazionatuta baitaude eta jarduera zehatz baterako planifikatutako helburu bat ez lortzeak kurtsoaren erritmoarekin jarraitzeko ezintasuna sor dezakeelako.

Lan erritmo jarrai hau ziurtatu ahal izateko, banakako eta talde lanak entregatu beharko dira eta era berean, autoebaluazio jarduerak egingo dira ikasle bakoitzak lauhilabetean zehar bere ebaluazioa nolakoa den egiaztatu ahal izateko.

Gainera, proposatzen diren ariketa guztietan berehalako *feedback*-a jasoko duzue eta horrela, kurtsoa amaitu aurretik, programatutako ikaskuntza helburu guztiak lortzeko aukera izango duzue.

Dударик gabe, klase magistralen garapenak jasango duen aldaketarik handiena da guztiz aktiboak izatera pasatuko direla eta ikasleen parte hartze eta lan jarraia (lauhilabetean egonkorrak izango diren taldeetan) planteatutako helburuak lortzeko ezinbesteko oinarria izango direla.

3. EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Eragin programaren garapenean egindako metodologia aktiboen ezarpenarekin, irakasgaiaren ebaluazioa modu honetan egingo da:

- Notaren **%40-a** ebaluazio jarraiko zereginei dagokio:
 - o %15: ariketen azterketa (4. korapiloa, 1., 2. eta 3. jarduerak, 12. astean, 39. egunean)
 - o %10 (bakarka egiteko galdetegi batutzaileak, 3 direnak. Bakoitzaren balioa: 0,33 puntu)
 - o %15 (taldeka lantzeko entregagaiak, 6 direnak. Bakoitzaren balioa: 0,25 puntu). Ebaluaziorako irizpide garrantzitsuenak hauexek izango dira:
 - Egindako aktibitatearen aurrean jarrera erreflexiboa erakustea.
 - Entregagaietan agertzen den informazioaren estruktura egokia (argi eta egituratua).
 - Ariketa edo kasu berrien ebazpen maila.

- Notaren **%55-a** azken azterketa baten bidez baloratuko da eta notaren erdia lortu behar da gainontzeko notak kontuan izateko:
 - o %15: Eragin metodologiaren bidez landutako gaiei buruzko galderak izango dira.
 - o %40: "Ez-Eragin" edo ohiko metodologiaren bidez landutako gaiei edota ordenadore praktikei buruzko galderak Ebaluaziorako irizpide garrantzitsuenak hauexek izango dira:
 - Akats larririk ez egotea.
 - Erantzunen egokitasuna.
 - Ariketa edo kasu berrien ebazpen maila.

- Notaren **%5-a** ohiko taldearen ebaluaziorako entregatu beharreko fitxaren bidez baloratuko da. Horretarako, taldekideek adostu eta banatu behar dituzte 10 puntu haien artean.

Ordenadore praktikak egin ezean edo jarrera aktiboa erakusten ez duen ikasleak, ikasgai osoa aprobatu ahal izateko, praktikei buruzko azterketa bat egin eta aprobatu beharko du.

1. Oharra: Fakultate Batzarrak 2014ko maiatzaren 14an hartutako erabakian xedatutakoa aintzat hartuz, bukaerako proba bakarria egiteko aukera eska dezakete ezohiko deialdia egin behar duten ikasleek (notaren %100). Horretarako, lauhilabetearen lehehengo 15 egunetan beharrezkoa izango da irakasleari Fakultateak duen eskari-orria eskatzea eta bi ale betetzea: bat irakasleak gordeko du eta bestea ikasleak.

2. Oharra: Deialdiari uko egiteko nahikoa izango da proba idatzia ez egitea. Azterketaren egunean aurkezten ez den ikaslea, ez-aurkeztua bezala agertuko da zerrendetan. Ezohiko deialdian, ikasurte horretan ebaluazio mistoan lortutako nota gordeko da, beraz azken proba idatzia egin beharko da.

3. Oharra: *Ebaluazio hezigarriaren* bidez ikaskuntza prozesuan zehar agertzen diren aurrerapenak eta zailtasunak balioztatzen dira, baina ez da notarik jartzen. *Ebaluazio batutzailea* aldiz, gai edo jarduera konkretu batzuk amaitu ostean helburu konkretu batzuk lortu direla ziurtatzeko egiten den ebaluazioa da eta kasu honetan nota jartzen da.

4. HASIERAKO EGOERA

a) Hasierako egoera definitzen duen galdera

Nola imajinatzen duzu zure etorkizun profesionala 2017 urtetik aurrera?

b) Arazoaren egoera

Farmazia graduko 5. maila hasieran zaude. Zure lan etorkizunaz oso kezkatuta zaude, ez dauzkazu argi lan irteerak eta segituan Praktika Tutelatueekin hasiko zara. Nahastuta zaude eta zalantza asko dituzu.

Zure ama ere Farmazia ikasten hasi zen orain dela urte asko, baina ez zituen ikasketak bukatu. Familia handi bat izan eta zaintzea erabaki zuen. Dena den, beti kezkatzen da klaseak zelan doazkizun eta oraingoan zure etorkizun profesionalari buruz gomendioak ematen oso arduratuta dago. Horregatik, aholkatzen dizu Mariarekin, karrerako bere lagun minarekin, harremanetan jartzea, orain farmazia--bulego bateko titularra delako eta bere esperientzia oso baliagarria izan daitekeelako.

c) Haria

Laister zure garapen profesionaleko zenbait erronka izango dituzu aurrez aurre. Normala denez, zalantza asko dituzu, baina zure ama eta bere lagun Mariari esker, zure farmazia -bulego propioaren titularra izaten lagunduko dizuten ezaguera eta esperientzia berriak lortzen joango zara.



Metodologia aktiboetan oinarritutako irakaskuntzaren abantailak aprobetxatu ahal izateko, Arazoetan Oinarritutako Irakaskuntza AOI-ren hasieran egoera antzekoenean kokatu behar duzu: 5. mailan zaude eta laister **praktika tutelatuak** egiten hasi behar duzu. Honek estres egoera handia sortzen dizu, galduta sentitzen zarelako, galdera ugari dituzulako eta ez dakizulako ondo nolakoak diren gauzak. Erabaki behar duzun lehenengo gauza da, zure aukeren artean, non egin nahi dituzun praktika tutelatuak. Beraz, hau izango da proiektuaren lehen atalean landuko duguna.

Hilabete gutxira, Gradua amaitua izango duzu eta zure ibilbide profesionala hasi beharko duzu. Momentu honetan, pentsatu beharko duzu, erantzunkizun gehiago eta ordura arte egin ez dituzun beste zeregin batzuk egiteko kontratatua izango zarela **farmazilari atxikitu** bezala.

Urte batzuetara (AOI-n errealitatean gertatzen dena baino bizkorrago joango gara), zure **farmazia-bulego propioa** izatea pentsa dezakezu, erantzunkizun gehiago eskuratuz. Honela, garrantzia handiagoko arazoei aurre egiten eta enpresa esparruko erabakiak hartzen ikasiko duzu.

Egoera honetan, datorren ikasturtetik aurrera aurkituko dituzun eta lan bizitzari estuki lotuta dauden gaitasunak ikasten joango zara pixkanaka-pixkanaka.

5. JARDUEREN SEKUENTZIA

5.1.- LEHEN KORAPILOA

a) 1. Korapiloaren jatorrizko galdera

Zeintzuk dira Farmazia -bulego baten lan egiteaz gain Farmazia Graduak eskaini ahal dizkidan irteera profesional nagusiak?

b) Korapiloaren egoera

Farmazia Graduko 5. maila hasieran zaude. Zure lan etorkizunaz oso kezkatuta zaude, ez daukazu argi lan irteerak eta segituan Praktika Tutelatueekin hasiko zara. Nahastuta zaude eta zalantza asko dituzu.

Zure ama ere Farmazia ikasten hasi zen orain dela urte asko, baina ez zituen ikasketak bukatu. Familia handi bat izan eta zaintzea erabaki zuen. Dena den, beti kezkatzen da klaseak zelan doazkizun eta oraingoan zure etorkizun profesionalari buruz gomendioak ematen oso arduratu dago. Horregatik, aholkatzen dizu Mariarekin, karrerako bere lagun minarekin, harremanetan jartzea, orain Farmazia -bulego bateko titularra delako eta bere esperientzia oso baliagarria izan daitekeelako.

Zuk batez ere farmazi baten lan egiteko asmoa daukazu, baina ez daukazu oso argi ikerketa gustatzen zaizun, horregatik ez dituzu hau edo beste irteera batzuk ere baztertzen... ospital batean lan egitea ere ondo legoke!

Arratsalde baten Mariari deitzea erabakitzen duzu. Bere etxean geratzen zarete eta elkarrekin aukeratu dezakezun ibilbide profesional desberdinei eta beraien araudiari buruzko zure dudak argitzen lagunduko dizuen informazioa bilatzen duzue, Mariak jadanik ahaztuta baitauka.

c) Ikaskuntza Baliabideak

- Internet konexioa.
- Gaiari buruzko indarreko legeria.
- La universidad en Píldoras. José Ramón Chaves García. Editorial. Oficina de Cooperación interuniversitaria, 2012.
- Duela gutxi praktika tutelatua Gasteizko Txagorritxu Ospitalean egin

dituen farmazilaria.

- Farmazia eta Elikagaien Zientzia Sailean (Farmazia eta Teknologia Farmazeutiko Laborategian) tesi doktora egiten ari den azken urteko beka predoktorala daukan farmazilaria.
- Espezialisten formakuntza gida.

d) Jardueren Sekuentzia

1. KORAPILOA. 1. Jarduera	
1. eguna	
Zertan datza AOIk?	
Presentziala eta ez presentziala	Talde egonkorren eraketa
Estimatutako denbora	
0,5 ordu presentzial + 0,5 ordu ez presentzial	
Ebaluazioa	
Ez da ebaluatzen	

GARAPENA

1. Zeregina. Talde lan egonkorrak (3 ikasle) sortu eta kontakturako datuak elkartrukatu (presentziala). Taldea sortu eta gero, bakoitzak *Taldeen eraketaren agiria (1. eranskin)* idatzi eta e-gela-ra igo beharko da 3. asteko 11. eguna baino lehenago (30 min, ez presentziala). Ikasleek Agiri baten eredia jasoko dute eta bertan taldearen funtzionamenduaren arauak eta beraien itzaropenen hausnarketa egin beharko dute.

EBALUAZIOA

Ez da ebaluatuko

1. KORAPILOA. 2. Jarduera	
2. Eguna	
Zeintzuk dira farmazilari baten irteera profesionalak?	
Presentziala	Indukziozko metodoa / Klikerrak
Estimatutako denbora ordu 1 presentzial	
Ebaluazioa Ez da ebaluatzen	

GARAPENA

1. Zeregina. Arazo egituratzailearen eta 1. korapiloaren aurkezpena klasean (5 min). Taldean hausnartu eta korapiloari konponbidea emateko jarraitu beharreko pausuak amankomunean jarri (10 min).

2. Zeregina. Aurre-galdeketak (*kliker bidez*) erabiliko dira oinarrizko legeriari buruzko ezagutza zein den jakiteko eta oinarrizko kontzeptuak argitzeko: legezko dokumentuen kategoriak, aplikazioak, etab. (20 min, klasean).

3. Zeregina. 3. jardueraren aurkezpena (15 min).

EBALUAZIOA

Ez da ebaluatuko

1. KORAPILOA. 3. Jarduera	
3 eta 4. egunak	
Zer pausu eman behar dituzu ikerketa edo irakaskuntzan jarduteko edo farmazilari espezializatu bat izateko?	
Presentziala eta ez presentziala	Aronson puzzlea / talde iraunkorrak / Adituei kontsultatu
Estimatutako denbora	
2 ordu presentzial + 2 ordu ez presentzial	
Ebaluazioa	
Ebaluazio hezigarria, taldeko entregagai eta e-gela bidezko auto-ebaluazio baten bidez	

GARAPENA

2. egunetik 3. egunera:

1. Zeregina. Talde iraunkorrean, kide bakoitzak aztertu beharreko irteera profesionala (ikerketa karrera, irakaskuntza, FIR bidezko espezializazioa) aukeratu (5 min, ez presentziala).

2. Zeregina. Taldeko kide bakoitzak aukeratu duen gaiari buruzko bilaketa Booleanoa egingo du eta aurkitzen duen informazioan sakonduko du (1 ordu, ez presentziala)

3. eguna:

3. Zeregina. Adituen bilera. Landu behar diren irteera profesional bakoitzeko adituak, beste taldeko adituekin bilduko dira (30 min, klasean). Taldeek, aurkitu beharreko kontzeptu garrantzitsuenak zehazten dituen *check-list* bat jasoko dute (check-list-aren berrikustea, 10 min, klasean, 2. *eranskina*). Gainera, kanpoko adituen laguntza izango dute: praktika tutelatuak ospital bateko farmazia zerbitzuan egin dituen farmazilari bat, ikerketan lan egiten duen aditu bat (saileko bekadun predoktoral bat) eta irakaslea irakaskuntzako profesional bezala arituko dira. Hiru aditu hauen laguntzarekin talde bakoitzak bere *check-list*-a bete ahal izango du.

Azkenik, aditu talde bakoitzak orri batean mapa kontzeptual bat egingo du bakoitzaren ohiko taldekideei adituen bileran zeri buruz hitz egin den azaldu ahal izateko (10 min, klasean).

Adituen bilerarako rolak:

- Hizlaria: Berak arazoa nola ebatzi duen azaltzen du.
- Galdegileak: Argibideak eskatzen dituzte eta iruzkin kritikoak egiten dituzte.
- Idazkaria: Zeregina eztabaidarako aurreikusi den denboran burutzen dela ziurtatzen du.

4. eguna:

4. Zeregina. Ohiko taldearean bilera. Taldekide bakoitzak gainontzekoei lan egin duen adituen tadeetan sakondutako gaia azalduko die mapa kontzeptuala erabiliz. (45 min, klasean).

Talde bilerarako rolak (gai bakoitza eztabaidatzen den heinean txandakatur izango diren rolak):

- Hizlaria: Bere zatia azaltzen du.
- Galdegilea: Argibideak eskatzen ditu eta iruzkin kritikoak egiten ditu.
- Idazkaria: Zeregin honi dagokion denbora ez dela gainditzen ziurtatzen du.

5. Zeregina. Talde bakoitzak landutako irteera profesionalei buruzko entregagai bat egin beharko du (1 ordu, ez presentziala, 3. *eranskina*).

EBALUAZIOA

Taldeko entregagaia (3. *eranskina*): 2. astea (8. eguna) pasatu aurretik e-gelara igoko da. Ikasleek entregagaiaren egokitzapenari buruzko *feedback*-a jasoko dute, non egokiak ez diren alderdiak eta ondorioz hobetu beharrekoak agertzen diren. Ebaluazio hezigarria izango da.

Taldeko entregagaiaren Ebaluazio Irizpideak:

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Entregagaia epean aurkezten dute akatsik gabe, modu argian eta ordenatuan eta eskatzen diren atal guztiak beteta agertzen dira.	Entregagaia epean auzten dute, baina akats batzuekin.	Ez dute entregagarria aurkezten edo epez kanpo aurkezten dute eta/edo akats larriekin, modu ulergaitz edo zabar eta ez argi batean aurkezten dute.

Auto-ebaluazio hezigarria: ikasleek e-gelan galdetegi bat izango dute jarduera honetan landutako kontzeptuei buruzko beraien ezagutzak aztertu ahal izateko. Galdetegi 24 ordutan izango dute eskuragarri. (2. astea bukatzean, 7-8. egunak)

Ebaluazio Irizpideak:

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Galdera guztiak ondo erantzuten ditu	Galdera batzuk ondo erantzuten ditu	Ez du galdetegi egiten edo erantzun erdiak txarto erantzuten ditu.

5.2.- BIGARREN KORAPILOA

a) 2. korapiloaren jatorrizko galdera

Graduan zehar gauza asko ikasi dituzu, baina... Nola jarri ditzakezu praktikan kontzeptu guzti horiek? Nolako da Mariaren farmaziako eguneroko lana?

b) Korapiloaren egoera

Mariarekin geratu eta zenituen zalantza asko argitu ondoren, azkenean praktika tutelatuak Farmazia -bulego batean egitea erabaki duzu. Zure espediente akademiko altuari esker Mariaren farmazia aukeratu ahal izan duzu eta gainera berak atsegin handiz hartu zaitu. Zalantzarik gabe, erantzunkizun handia da. Ez diozu zure amari huts egin nahi eta gainera, Mariak oso ondo jokutzen du zurekin! Gauza asko dauzkazu ikasteko!

Mariaren Farmazian praktika tutelatuetan lanean ari zaren bitartean, egun batzuk pasatu dituzu era askotako hornitzaileei egindako eskaerei harrera egiten. Inoiz ez zinen ohartu zenbat kutxa mota zeuden eta zenbat sinbolo desberdin agertzen diren beraietan! Orain da momentua ulertzeko informazio guzti horrek zertarako balio duen!

c) Ikaskuntza Baliabideak

- Internet konexioa.
- Indarrean dagoen legeria.

d) Jardueren Sekuentzia

2. KORAPILOA. 1. Jarduera	
5. eguna	
Ondo ezagutzen ditugu medikamentuekin erlazionatutako kontzeptu guztiak?	
Presentziala eta ez presentziala	Taldeko klikerrak / 2. jardueraren aurkezpena
Estimatutako denbora 1 ordu presentzial + 1 ordu ez presentzial	
Ebaluazioa Taldeko entregagairen araberako ebaluazio batutzailea	

GARAPENA

1. Zeregina. Aurre-galdetegiak (*klikerren bidez*) erabiliko dira oinarritzko kontzeptuen definizioei buruzko ezagutza zein den jakiteko. (45 min, klasean).
2. Zeregina. 2. jardueraren aurkezpena. (5 min).
3. Zeregina. 1. Zereginean landutako medikamentuei buruzko definizio ofizialei buruzko taldeko entregagai bat egitea. (4. *eranskina*) (1h, ez presentziala).

EBALUAZIOA

Ebaluzioa batutzailea izango da eta kronograman agertzen den datan e-gelaren bidez aurkeztu beharreko taldeko entregagai (4. *eranskina*) bat egin beharko da (3. astearen hasiera, 9. eguna).

Ebaluazio Irizpideak:

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
<p>Definizioak akats barik, guztiz osaturik eta modu argian eta ordenatuan eta informazioa lortzeko erabili dituzten dokumentuak, epean aurkeztu dituzte.</p>	<p>Definizioak akats batzuekin edo guztiz osatu gabe, baina modu argi eta ordenatuan eta epean aurkeztu dituzte eta/edo ez dute aipatu, zein dokumentutatik lortu duten informazioa.</p>	<p>Ez dute entregagaia aurkeztu edo epe kanpo aurkeztu dute eta/edo akats larriekin, modu ulergaitz edo zabar eta ez argi batean aurkeztu dute.</p>

2. KORAPILOA. 2. Jarduera	
6 eta 7. egunak	
<i>Ze informazio lortu ahal dut medikamentu batetik?</i>	
Presentziala eta ez presentziala	Banakako lana, talde iraunkorren lana, klasean amankomunean jarri
Estimatutako denbora	
2 ordu presentzial + 1,5 ordu ez presentzial	
Ebaluazioa	
Taldeko entregagairen araberako ebaluazio batutzailea	

GARAPENA

5. egunetik 6. egunera:

1. Zeregina. Ikasle bakoitzak, etxean dituen medikamentuen sinbolo eta siglak irakurri ahal izateko besteko kalitate nahikoa duten argazkiak atera (kutxan informazioa agertzen den alde guztiena) behar izango ditu eta era berean, kutxa bakoitzak daukan prospektua (0,5 ordu, ez presentzialak). Zeregin hau aurreko klasean azalduko da.

6 eta 7. egunak:

Mariaren Farmazian praktika tutelatuetan lanean ari zaren bitartean, egun batzuk pasatu dituzu era askotako hornitzaileei egindako eskaerei harrera egiten. Inoiz ez zinen ohartu zenbat kutxa mota zeuden eta zenbat sinbolo desberdin agertzen diren beraietan! Orain da momentua ulertzeko informazio guzti horrek zertarako balio duen!

2. Zeregina. Taldean ikasle bakoitzak ateratako argazkiak amankomunean jarri eta beraien esanahia google-en bilatu (6. eguneko 50 min eta 7. eguneko 25 min, klasean). Taldeko kide batek, gainontzeko ikaskideei bere taldean aurkitutako sinbolo eta siglen zerrenda aurkeztuko die amankomunean jarriz eta gainontzeko ikaskideek beraien argazkiekin aurkitu ez dituztenak apuntatuz (7. eguneko 25 min, klasean). Gainera, irakasleak hain ohikoak ez diren sinboloez osatutako dokumentu bat emango du ikasleek ezagutu ahal dezaten (5.

eranskina).

3. Zeregina. Farmaziara heltzen diren eta sarrera egin dion medikamentuetan agertzen den informazioari buruz ikasi duzunaren taldeko entregagai bat igo e-gelara (6. *eranskina*) (2. Zeregina egiten den bitartean, klasean eta 1 ordu ez presentziala).

EBALUAZIOA

Ebaluzioa batutzailea izango da, 3. astean (12. eguna) e-gelaren bidez aurkeztu beharreko taldeko entregagai (6. *eranskina*) baten bidez. Entregagai honetan, talde bakoitzak, lortutako sinbolo eta siglen argazki eta esanahiak agertzen diren laburpen taula bat aurkeztuko du. Era berean, beste ikaskideek amankomunean jarri dituzten sinboloak ere agertu beharko dira eta irakasleak emandakoak ere bai (5. *eranskina*). Gainera, medikamentuen prospektuetan agertzen den informazioa ere agertu behar izango da.

Ebaluazio Irizpideak:

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Definizioak akats barik, guztiz osaturik eta modu argian eta ordenatuan eta informazioa lortzeko erabili dituzten dokumentuak epean aurkeztu dituzte.	Definizioak akats batzuekin edo guztiz osatu gabe, baina modu argian eta ordenatuan eta epean aurkeztu dituzte eta/edo ez dute aipatu informazioa lortzeko erabili dituzten dokumentuak zeintzuk diren.	Ez dute entregagaia aurkezten edo epez kanpo aurkezten dute eta/edo akats larriekin, modu ulergaitz edo zabar eta ez argi batean aurkezten dute

2. KORAPILOA. 3. Jarduera	
9-12 egunak	
Zer nolako errezetak heldu daitezke Mariaren Farmazia-bulegora? Zer egin behar dut dispentsazioa modu egokian egiteko?	
Presentziala eta ez presentziala	Induktiboa: banakakoa, 4 pertsonako taldea eta talde handia
Estimatutako denbora 4 ordu presentzial + 5 ordu ez presentzial	
Ebaluazioa Taldeko entregagairen eta e-gela bidezko banakako testaren araberrako ebaluazio batutzailea, eta klaseko ebaluazio hezigarria	

GARAPENA

9. eguna:

Jadanik medikamentuen kutxetan agertzen den informazioa eta dispentsazioari buruzko murrizketa batzuk jakinik, Mariak pentsatzen du bere ikuskapenarekin dispentsatzen hasteko prest zaudela. Ezin zara pozago egon! Eta era berean urduri! Baina... ez da gauza bera zure amonaren medikazioa jasotzera joatea edo zu izatea pazienteak eskatzera datozena ematea!

Lehen eguna. Goizeko 10-ak. Farmazian, Mariak farmazia-bulegoa ireki zuenetik ezagutzen duen betiko paziente-bezero bat sartzen da, Teresa. Mariak aurkeztu egiten zaitu eta esaten dizu gaur zu izango zarela Teresaren medikazioa prestatuko duena, berak ekarritako bere eta bere alabaren errezetak erabiliz.

Maria: "Lehenengo eta behin konturatu behar zara ea errezeta ondo beteta dagoen. Bestela agintariek atzera botako dute eta baliteke medikamentua ez ordaintzea!"

Uff zer nolako erantzunkizuna...

Maria: "Era berean konturatu behar zara errezeta bakoitzari nolako ekarpena dagokion eta ze medikamentu eman behar dugun kasu bakoitzean".

Teresak medikamentu berezien, adibidez estupefaziante eta psikotropoen, errezeta batzuk ditu. Batzuek oniritzia behar dute eta beste batzuk ezin dira ordezkatu.

Maria: "Medikamentu batzuek kontrol berezia behar dute. Badakizu zeintzuk diren eta zer nolako eginkizunak dauzkagun bai dispentsazioan bai dispentsatu eta gero?"

1. Zeregina. Irakasleak egoera azalduko du (5 min, klasean)

2. Zeregina. Banaka egoera aztertu (5 min, klasean) eta talde handian *brainstorming* egin (30 min, klasean). Irakaslea agertzen diren ideiak idazten eta ordenatzen joango da eta zailagoak direnak ateratzen lagunduko du.

3. Zeregina. Talde lanaren plana definitu (10 min, klasean). Zeregin honen ikaskuntza helburuak klasean definitu eta gero, ikasleak talde txikietan bildu egingo dira maila bakoitzari buruzko informazioa norik bilatuko duen erabakitzeko.

9. egunetik 10. egunera:

4. Zeregina. Autoikasketaren aldia (1 ordu, ez presentziala). Fase honetan, ikasle bakoitzak egokitu zaion zereginean bakarka lan egingo du.

* Laguntzarako material gisa, ikasleek behar izango duten informazio gehiena aurkituko duten dokumentu legalen (Legeak, Errege Dekretu-Legeak, Errege Dekretuak eta Ordenak) zerrenda bat emango zaie (7. eranskina).

10. eguna:

5. Zeregina. Talde txikietan ideiak amankomunean jarri eta ikasitako maila bakoitzari buruzko mapa kontzeptual bat egin. Laburpen edo mapa kontzeptualak berdinak izango dira, baina ikasle bakoitzak hurrengo klasera eramane behar izango duen kopia bat eduki beharko du. (50 min klasean, ordu 1ez presentziala)

11. eguna:

6. Zeregina. Taldeko kide bakoitza beste ikaskide batzuekin elkartuko da, hau da, guztiz berriak diren taldeak sortuko dira eta hasierako taldean bakoitzak egindako mapa kontzeptuala azalduko du.

Helburua talde desberdinek bildu duten informazioa eta lortu diren helburuak zeintzuk diren egiaztatzea da. Guztiek ikaskuntza helburuak lortzen dituztela kontrolatzeko, saio honetan irakasleak laguntza materiala emango die (8. *eranskina*). (50 min, klasean eta ordu 1 ez presentziala)

12. eguna:

7. Zeregina. Ohiko taldearen beste bilera bat, non beste taldeetan bildu ahal izan den informazioa aztertuko den. (30 min, klasean).

8. Zeregina. Ebaluazio hezigarria momentuko *feedback*-arekin. Irakasleak zoriz talde bakoitzeko kide bat aukeratuko du eta honek maila deseberdinetako galdera batzuk erantzun behar izango ditu. Gainontzeko taldekide eta ikaskideek, lagundu ahal izango diote erantzuna argi ez baldin badauka. (20 min, klasean).

9. Zeregina. Taldeko entregagai baten bidez ebaluazio batutzailea (ordu 1, ez presentziala) (9. *eranskina*).

Hilabete honetan, administrazioak errezeta batzuk itzuli ditu Mariaren farmaziara. Berak uste du zuretzat interesgarria izango dela errezeta bakoitzean egon den akatsa aurkitzea beraien itzultzearen arrazoia jakin ahal izateko.

EBALUAZIOA

Ebaluazioa hasiera batean hezigarria izango da, klasean bertan 8. Zereginaren bidez eta momentuko irakaslearen *feedback*-a lortuko da.

Baina horretaz gain, taldeko entregagai baten bidezko ebaluazio batutzaile bat ere egongo da (9. Zeregina, 9. *eranskina*). Irakasleak forma akatsak direla eta Mariaren farmaziara itzuli diren hainbat errezeta banatuko ditu. Ikasleek, taldeetan, akats horiek aurkitu beharko dituzte eta e-gela bidez txosten bat aurkeztu behar izango dute 4. astearen bukaera baino lehenago (16. eguna).

Ebaluazio Irizpideak:

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Entregagaia epe barruan aurkezten dute, akatsik gabe modu argian eta ordenatuan errezetaren itzultzearen arrazoia justifikatuz	Entregagaia epe barruan aurkezten dute, baina akats batzuekin edo erantzuna argi eta ordenati batean justifikatu gabe.	Ez dute entregagaia aurkezten edo epez kanpo aurkezten eta/edo akats larriekin, ulergaitz eta justifikaziorik gabe edo modu zabar eta zabar eta ez argi batean aurkezten dute

Azkenik, beste ebaluazio batutzailerik bat egongo da, baina kasu honetan ikasle bakoitzak bakarka 24 orduetan erabilgarri izango duten e-gelaren bidezko erantzun anitzeko galdera batzuk (test) egin behar izango dituzte 4. astea amaitzean (15-16 egunak).

Ebaluazio Irizpideak:

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Galdera guztiak ondo erantzuten ditu	Galdera batzuk ondo erantzuten ditu	Ez du galdetegia egiten edo galdera erdiak txarto erantzuten ditu.

2. KORAPILOA. 4. Jarduera	
Ordenagailu praktika saioa	
Zer egin behar da formula magistral bat preskribitzen denean?	
Presentziala	Induktiboa: bakarka, 3 pertsonako taldea, talde handia
Estimatutako denbora	
4 ordu presentzial + 1 ordu ez presentzial	
Ebaluazioa	
Hezigarria	

GARAPENA

Praktika saioa (klasean):

Gaur farmaziara formula magistral bat preskribatu dioten paziente bat heldu da. Bazenekien ez zela oso ohikoa, baina orain, esku artean izanik, ez dakizu zer egin behar duzun.

1. Zeregina. Irakasleak egoera azalduko du (5 min, klasean)
 2. Zeregina. Talde handian egoera aztertu eta *brainstorming* egin (10 min). Irakaslea agertzen diren ideiak idazten eta ordenatzen joango da eta zailagoak direnak ateratzen lagunduko du.
 3. Zeregina. Talde berriaren (3 ikasle) lanaren plana definitu, hau da, maila bakoitzari buruzko informazioa nork bilatuko duen erabaki (5 min)
 4. Zeregina. Autoikasketaren aldia (1 ordu). Fase honetan, ikasle bakoitzak egokitu zaion zereginean bakarka lan egingo du.
- * Laguntzarako material gisa, ikasleei dokumentu legalen zerrenda bat emango zaie (10. eranskina).
5. Zeregina. Emandako atal bakoitzeko gakoak amankomunean jarri talde txikian (30 min).

6. Zeregina. Talde hadian ideiak amankomunean jarri. (15 min)

7. Zeregina. Formula magistralei salneurria jarri (tasazioa). Talde bakoitza aurreko zereginetan aurkitu eta eztabaidatu duen teoria kontutan izanik formula magistral batzuei prezioa jartzen ahaleginduko da. (30 min)

8. Zeregina. 7. Zereginaren ebaluazio hezigarria. Zoriz aukeratutako ikasle batzuk proposatutako ariketa desberdinak zuzenduko dituzte. (15 min)

9. Zeregina. Prospektu bat egitea. Lan talde bakoitzak formula magistral bat aukeratu eta erabilera-orri edo informazio-orri bat idatzi beharko du, ematen zaion pazientearentzat bideratuta. (30 min)

EBALUAZIOA

Ebaluazioa hezigarria izango da.

Alde batetik, 6. Zereginean gaiaren ideia nagusiak landuko dira eta ikaskideen erantzunak komentatu eta gero, talde guztiek egindako lanari eta materiaren ulermenari buruzko *feedback*-a jasoko dute.

Era berean, talde handian zuzendutako tasazioari buruzko ariketak (7 eta 8. Zereginak) kontutan izanda, ikasle guztiek jakin ahal izango dute proposatutako formulen prezioen kalkulua ondo egin duten edo ez.

Azkenik, talde bakoitzak praktika saioak amaitu aurretik e-gela bidez aurkeztu beharreko erabilera-orri bat idatzi beharko du. Ebaluazioa hezigarria izango da Irakasleak beharrezkoa izanez gero, entregagaia hobetzeko komentarioak eginez zuzenduko du. Praktika saioak amaitu eta gero, irakasleak plataforma informatikoan erabilera-orri modeloak igoko ditu bakoitzarenarekin konparatu eta hobetu ahal izateko (autoebaluazioa) (11. *eranskina*).

Erabilera-orriaren Ebaluazio Irizpideak:

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Entregagaia epe barruan aurkezten dute akats barik, modu argi eta ordenatuan, eta legalki beharrezkoak diren atal guztiak agertzen dira.	Entregagaia epe barruan aurkezten dute, baina akats batzuekin.	Ez dute entregagaia aurkezten edo epez kanpo aurkezten dute eta/edo akats larriekin, modu ulergaitz edo zabar eta ez argi batean aurkezten dute.

5.3.- HIRUGARREN KORAPILOA

a) 3. Korapiloaren jatorrizko galdera

Nola handitu ditzakegu parafarmazia produktuen edo preskripzio medikua behar ez duten produktuen salmentak Farmazia -bulegoan?

b) Korapiloaren egoera

Amaitu dituzu praktikak eta baita gradu amaierako lana ere. Dagoenako Farmaziako Gradua lortu duzujji Zorionakjji Baina....orain, zer? Bat-batean Mariaren dei bat jasotzen duzu. Hasiera batean pentsatzen duzu Mariak deitzen dizula kurtso bukaera zelan joan den jakiteko, baina bai zerajjji Mariak esaten dizu bere Farmaziako farmazialari laguntzaile bat haurdun dagoela, eta dirudienez, nahiko haurdunaldi zaila izango du, beraz baja oso laister hartu du.

Gustatuko litzazuke farmazialari laguntzaile bezala lan egiten hastea Mariaren farmazian?

Bai!!!! Noski!!!- hori izan zen zure hasierako erantzuna, baina berehala zalantza asko eta beldurak etortzen zaizkizu burura. Azken finean, ardurua handia eskatzen du lanpostu berriak. Edozein kasutan, zoriontsu zaudejjji Baina...

Orain benetako farmazialari laguntzailea zarela eta Farmazia -bulegoaren lan taldean zaudela, Mariak komentatzen dizu produktu-sorta berri baten salmenta abian jarri nahi duela eta bere bideragarritasuna aztertzeke, marketing plana diseinatzeke eskatzen dizu.

Marketing plana?... nondik hasi?

c) Ikaskuntza baliabideak

- Internet konexioa
- Irakasleak emandako dokumentazioa
- Laguntza-bideoak

d) Jardueren sekuentzia

3. KORAPILOA. 1. Jarduera	
14. eguna	
Uste al duzu Marketinga eta Merchandisinga garrantzitsuak izan daitezkeela zure Farmazia -bulegoaren errentagarritasuna hobetzeko?	
Presentziala	Indukzio metodoa / Galdetegia
Estimatutako denbora	
Ordu bat presentziala	
Ebaluazioa	
Ez da ebaluatzen	

GARAPENA

1. Zeregina. Ikasleek, irakasleak prestatutako galdetegia erantzun beharko dute. Galdetegi horretan, marketing eta merchandisingari buruzko ideiak edo topikoak agertuko dira (20 min, klasean).

2. Zeregina. Taldeko hausnarketa eta galdetegiaren erantzunei buruzko eztabaida (20min, klasean).

3. Zeregina. 2. eta 4. Jardueren, 1. eta 2. Zereginen aurkezpena (10 minutu)

EBALUAZIOA

Ez da ebaluatzen.

3. KORAPILOA. 2. Jarduera	
17. eta 18. egunak	
<i>Produktu guztiek merkataritza-garrantzia bera daukate?</i>	
Presentziala eta ez-presentziala	Aronsonen puzzlea / Talde egonkorra
Estimatutako denbora	
2 ordu presentzial + ordu bat ez-presentziala	
Ebaluazioa	
Taldeko entregagaiaren bidezko ebaluazio batutzailea eta e-gela plataformaren bitartez egindako auto-ebaluazio hezigarria.	

GARAPENA

17. eguna baino lehen:

1. Zeregina. Talde egonkorrean, ikasle bakoitzak zer gairen gainean lan egingo duen erabakitzea (produktuek pasatzen dituzten faseak, BGC matrizearen araberako produktuen sailkapena, eskariaren elastikotasuna) (5 min, ez presentzialak)

2. Zeregina. Taldeko kide bakoitzak egokitu zaion gaiari buruzko bideo bat ikusiko du (irakasleak emanda). Gero, bideoaren edukiaren gainean hausnartuko du eta gaiari buruzko bilaketak egingo ditu hobeto sakontzeko (ordu 1, ez presentziala)

17. eguna:

3. Zeregina. Adituen bilera. Produktuekin erlazionatutako gai bakoitzeko adituak beste adituekin elkartuko dira (35 min, klasean). Gero, aditu-talde bakoitzak,

orrialde batean, konzeptu-mapa bat garatuko du talde txikiari azaldu ahal izateko adituen bileran landutakoa (15 min, klasean)

Adituen bilerarako rolak:

- Hizlaria: Bere gaia azaltzen du.
- Galdetzaileak: Argibideak eskatzen dituzte eta iruzkin kritikoak egiten dituzte.
- Idazkaria. Eztabaidarako aurreikusi den denboran burutzen dela ziurtatzen da.

18. eguna:

4. Zeregina. Ohiko taldean bilera. Taldekide bakoitzak gainontzekoei lan egin duen adituen tadeetan sakondutako gaia azalduko die mapa kontzeptuala erabiliz (45 min, klasean).

Talde bilerarako rolak (gai bakoitza eztabaidatzen den heinean txandakaturaz joango diren rolak):

- Hizlaria: Bere zatia azaltzen du.
- Galdetzailea: Argibideak eskatzen ditu eta iruzkin kritikoak egiten ditu.
- Idazkaria: Zeregin honi dagokion denbora ez dela gainditzen ziurtatzen da.

5. Zeregina. Taldeko entregagai baten elaborazioa, non produktu motak eta beren merkataritza-bizitzaren faseak agertzen diren (ordu 1, ez presentziala, 12. *eranskina*)

EBALUAZIOA

Taldeko entregagaia (12. *eranskina*). Lana 7. astearen hasieran, 25. egunean, e-gelaren bidez entregatuko da. Ikasleek entregagaiaren egokitzapenari buruzko *feedback-a* jasoko dute, non egokiak ez diren alderdiak eta ondorioz hobetu beharrekoak agertzen diren. Ebaluazio batutzailea izango da.

Ebaluazio Irizpideak:

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Entregagaia epean aurkezten dute akatsik gabe, modu argi eta ordenatuan eta eskatzen diren produktu motei eta bere mekataritza-bizitzari buruzko atal guztiak beteta agertzen dira.	Entregagaia epean auzkezten dute, baina akats batzuekin.	Ez dute entregagarria aurkezten edo epez kanpo aurkezten dute eta/edo akats larriekin, ulergaitz edo modu zabar eta ez argi baten aurkezten dute.

Auto-ebaluazio hezigarria: ikasleek e-gelan galdeketa bat izango dute jarduera honetan landutako kontzeptuei buruzko beraien ezagutzak aztertu ahal izateko. Galdeketa 24 orduetan izango dute eskuragarri. (7. astea bukatzean, 27-28. egunak)

Ebaluazio Irizpideak:

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Galdera guztiak ondo erantzuten ditu	Galdera batzuk ondo erantzuten ditu	Ez du galdetegia egiten edo erantzun erdiak txarto erantzuten ditu.

3. KORAPILOA. 3. Jarduera	
19. eta 20. egunak	
Farmazia -bulego batean erabili daitezkeen Merchandising teknika guztiak ezagutzen al dituzu?	
Presentziala	Indukzio metodoa: Talde egonkorra / Klikerrak
Estimatutako denbora	
2 ordu presentzial	
Ebaluazioa	
Ez da ebaluatzen	

GARAPENA

1. Zeregina. Klikerrak eta *Turningpoint* softwarea erabiliko dira merchandisingaren funtsezko ezaugarriak ezagutzeko eta Farmazia -bulegoan salgai dauden produktuetan zelan aplikatu jakiteko (2 ordu, presentzialak).

EBALUAZIOA

Ez da ebaluatzen.

3. KORAPILOA. 4. Jarduera	
21. eguna	
Nola aplikatuko zenituzkete zure Farmazia--bulegoan Merchandising teknikak?	
Presentziala eta ez-presentziala	Talde egonkorraren landa lana/ Ahozko aurkezpenak
Estimatutako denbora	
ordu 1 presentziala + 2 ordu ez-presentzial	
Ebaluazioa	
Batutzailea, taldeko aurkezpenaren bitartez	

GARAPENA

Jardueraren hasiera aurretiko egunetan:

1. Zeregina. Talde bakoitzak, gutxi-gorabehera Farmazia -bulego errealean 10 argazki atera behar ditu. Argazkiek kalitate nahikoa izan behar dute produktuen salmentarako erabili diren merchandisingaren elementuak zelan aplikatu diren identifikatu eta analizatu ahal izateko (ordu 1, ez presentziala). Garrantzitsua da Farmazia -bulegoei argazkiak ateratzeko baimena eskatzea ondo iruditzen zaien ziurtatzeko, arazoak ekiditeko.

2. Zeregina. Behin argazkiak lortu direla, taldeko ikasleak elkartuko dira lortu duten materiala amankomunean jartzeko. Analizatu behar dute marketing elementuak egoki erabili diren ala ez. Gero, taldeko *power point* aurkezpen bat egingo dute (ordu 1, ez presentziala). Aurkezpen horretan, taldeak lortutako argazkiak agertuko dira, erabilitako merchandising teknikei buruzko alde onak eta txarrak aipatuz (erabili izan badira) eta azkenik, hobetzeko plan bat garatu behar dute, esanez, farmaziaren itxura edo produktu zein erakustokien kokapena zelan hobetuko zuten. Honen helburua da, farmazian eskaintzen diren produktuekiko gaixo/bezeroen arreta edo interesa handitzea.

21. eguna:

3. Zeregina. Aurkezpenak klasean. Talde bakoitzeko ikasle batek, irakasleak zoriz aukeratua, 2. Zereginean egindako *power point* aurkezpena azalduko du eta talde txikian landutako hausnarketa eta landutako ondorioak ere azalduko ditu.

Aurkezpenen helburua da ikasleen ahozko komunikazioarako trebetasuna hobetzea (ahozko komunikazioaren gaineko *feedback*-a egingo da, nahiz eta aurkezpena ez kalifikatu). Gainera, taldeen arteko elkarrekintza bultzatuko da eta analizatutako argazkien hobekuntzarako posibilitateaz hausnartuko da, horrela, aurretik ikasitakoa egoera errealean aplikatuko da (ordu bat, presentziala).

Ikasleek aurkezpena egiteko ezarritako denbora bete beharko dute eta aurkezpenaren formatuari arreta jarri beharko diote (edizioa, letren tamaina, testu kantitatea, kolorea, irudiak eta animazioa).

EBALUAZIOA

Ebaluazioa hezigarria eta batutzailea izango da. Irakasleak berehalako *feedback*-a emango du 3. zereginean egindako *power point* aurkezpenei buruz.

Ebaluazio Irizpideak

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Aurkezpenak edukia eta formatu egokia du. Taldekako kideek egindako galderei zuzen erantzuten diete	Aurkezpenak edukia eta formatu ona dauka. Taldekako kideek zailtasunak dituzte planteatutako galderei egoki erantzuteko.	Aurkezpenak ez ditu asetzen ez formatu ez eduki eskakizunak. Taldekako kideek ez dituzte egindako galderak zuzen erantzuten.

3. KORAPILOA. 5. Jarduera	
21-24 egunak	
Zertan datza Marketing plan baten elaborazioa eta aplikazioa Farmazia - bulegoan?	
Presentziala eta ez-presentziala	Induktiboa: Indibiduala, talde egonkorra, talde handia
Estimatutako denbora	
3 ordu presentzial eta 3 ordu ez presentzial	
Ebaluazioa	
Banakako ebaluazio batutzailea galdetegi indibidual baten bidez (e-gelan) eta taldeko ebaluazio hezigarria, entregagai baten bidez.	

GARAPENA

22. eguna:

1. Zeregina. Irakasleak egoeraren analisia egingo du (5 min, klasean). Gero, talde handian *brainstorming* saio bat egingo da (40 min, klasean). Irakasleak, agertzen diren ideiak apuntatu eta sailkatuko ditu.

2 Zeregina. Talde bakoitzak lana era orekatuan banatu beharko du kideen artean (5 min, klasean).

22. egunetik 23. egunera:

3. Zeregina. Taldeko kide bakoitzak informazioa bilatu beharko du banaka (ordu bat, ez presentziala).

23. eguna:

4. Zeregina. Taldeko bilera. Kide bakoitzak lan egin duen gaiari buruzko informazioa eman beharko die gainerako taldekideei (ordu 1, presentziala).

23. egunetik 24. egunera:

5. Zeregina. Talde bakoitza klasetik kanpo elkartuko da poster moduko entregagaia egiteko (*power point*-en) kide guztien artean jasotako informazio nabarmenenarekin.

24. eguna:

6. Zeregina. Taldeko ebaluazio hezigarria. Zoriz aukeratutako talde bakoitzeko kide batek 5. Zereginen egindako posterra aurkeztuko die gainontzeko ikaskideei (ordu bat, klasean). Talde bakoitzeko zoriz aukeratutako ikasle horrek aurkezpenari ezarritako denborari lotu beharko dio. Gainera posterraren diseinuari ere (edizioa, letren tamaina, testu kantitatea, irudiak) garrantzia emango zaio.

EBALUAZIOA

Ebaluazioa hezigarria izango da, klasean egingo den 6. zereginaren bidez, non irakaslearen berehalako *feedback*-a jasoko den.

Ebaluazio Irizpideak

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Aurkezpenak edukia eta formatu egokia du. Taldeko kideek egindako galderei zuzen erantzuten diete	Aurkezpenak edukia eta formatu ona dauka. Taldeko kideek zailtasunak dituzte planteatutako galderei egoki erantzuteko.	Aurkezpenak ez ditu asetzen ez formatu ez eduki eskakizunak. Taldeko kideek ez dituzte egindako galderak zuzen erantzuten.

Azkenez, beste ebaluazio batutzailerik bat egongo da, baina kasu honetan ikasle bakoitzak, bakarka, 24 orduetan erabilgarri izango duen e-gelaren bidezko erantzun anitzeko galdera batzuk (test) erantzun behar izango ditu 8. astean (29-30 egunak).

Ebaluazio Irizpideak

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Galdera guztiak ondo erantzuten ditu	Galdera batzuk ondo erantzuten ditu	Ez du galdeketa egiten edo erantzun erdiak txarto erantzuten ditu.

3. KORAPILOA. 6. Jarduera	
Ordenagailu praktika saioa	
Nola ipiniko zenuke abian Mariak eskatu dizun Marketing plana?	
Presentziala	Induktiboa: Indibiduala, talde txikia, talde handia
Estimatutako denbora	
4 ordu presentzial + ordu bat ez presentziala	
Ebaluazioa	
Batutzailea, taldeko aurkezpenaren eta ebaluazio indibidualaren bitartez	

GARAPENA

Mariaren Farmazia -bulegoa bizitegi-gune berri batean kokatuta dago, aldirietan. 800 metrotara duela 3 urte ireki zuten beste farmazia -bulego bat dago. Zonalde horretan, 10.000 biztanlerentzat diseinatuta egon arren, oraindik %60 bizi da. Pixkanaka, denda berriak ireki dira (supermerkatu txikiak, janari-dendak, ile-apaindegiak, lurrin-dendak, tabako-dendak..), negozioak (tabernak, jatexzeak, -bulegoak...) eta arreta sozialeko zentroak (haurtzaindegiak). Gainera, 1500 metrotara, lehen mailako arretako zentroa inauguratu da. Mariak esan dizun moduan, Farmaziaren parafarmazia gunea handitu nahi duzue bereziki emakumeentzako aurpegi zaintzarako produktuekin (beste farmazian ere badaukate linea hau).

Egin dezakezen hasierako inbertsioa mugatua dela kontuan hartuta, nola diseinatuko zenuke marketing plan bat emakumeentzako aurpegi zaintzarako lerro hori bultzatzeko?

Ordenagailu praktika saioa (dena ikasgelan)

1. Zeregina. Egoeraren analisisa. Talde handian jorratzeko zeregina (klase osoa) brainstorming-aren bidez. Irakasleak agertzen diren ideia nagusiak apuntatuko ditu.

2. Zeregina. Ikasle guztien artean ikaskuntzaren helburuak definitzea (5 min)

3. Zeregina. Talde berriak sortzea (4 ikaslekoak) eta taldearen lan-plana definitzea (5 min). Zereginen banaketa egoerari konponbidea emateko.

4. Zeregina. Autoikasketaren aldia (50 min). Fase honetan, 3. zereginen ikasle bakoitzak egokitu zaion gaia landuko du banaka.

5. Zeregina. Talde txikian amankomunean jartzea eta Mariari aurkezteko marketing plana lantzea (50 min).

6. Zeregina. Ebaluazio batutzailea: Ahozko aurkezpena (10 min/talde) eta taldeko hausnarketa, plan desberdinak konparatzeko (10 min eztabaidarako).

Talde bakoitzak bere marketing plana aurkeztu behar du eta aurkezpen guztiak bukatzerakoan talde handian debatea egingo da zalantzak argitzeko, iradokizunak egiteko eta abar, eta talde bakoitzak garatu duen planen gainean hausnartuko da.

Beste alde batetik, behar diren inbertsioak aztertuko dira eta marketing plan bakoitza bideragarria den ala ez analizatuko da (60-80 min gutxi gorabehera).

7. Zeregina. Banakako ebaluazio batutzailea (15 min).

EBALUAZIOA

Ebaluazioa hezigarria eta batutzailea izango da, klasean egingo diren 6. eta 7. zereginen bidez, non irakaslearen berehalako *feedback*-a jasoko den.

Taldeko ebaluazio batutzailea: bere marketing planaren ahozko aurkezpena eta defentsa. Ahozko aurkezpenan taldeko ikasle ordezkariak marketing plana aurrera eramateko aukeratutako estrategia desberdinak azalduko ditu eta irakasleak edota gainontzeko ikasleek egindako galderak erantzungo ditu. Dena

ezarritako esposizio denboraren barruan. Taldeko gainontzeko kideek egindako galderak erantzuten lagundu diezaioke. Aurkezpenaren formatua (edizioa, letren tamaina, testu kantitatea, koloreak, irudiak eta animazioak) balorazio irizpide bezala kontuan hartuko da.

Ebaluazio Irizpideak

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
<p>Aurkezpenak edukia eta formatu egokia du.</p> <p>Taldeko kideek egindako galderei zuzen erantzuten diete</p>	<p>Aurkezpenak edukia eta formatu ona dauka.</p> <p>Taldeko kideek zailtasunak dituzte planteatutako galderei egoki erantzuteko.</p>	<p>Aurkezpenak ez ditu asetzen ez formatu ez eduki eskakizunak.</p> <p>Taldeko kideek ez dituzte egindako galderak zuzen erantzuten.</p>

Banakako ebaluazio batutzailea: praktika hau egiten den egun horretan bertan, ikasle bakoitza ebaluatuko da banaka, praktikan landutako kontzeptu batzuei buruzko galderen bidez.

Ebaluazio Irizpideak

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Galdera guztiak ondo erantzuten ditu	Galdera batzuk ondo erantzuten ditu	Ez du galdeketa egiten edo erantzun erdiak txarto erantzuten ditu.

5.4.- LAUGARREN KORAPILOA

a) 4. Korapiloaren jatorrizko galdera

Zer jakin behar duzu zeure Farmazia -bulegoaren titularra izan ahal izateko?

b) Korapiloaren egoera

Dagoeneko denbora asko eman duzu Mariarekin lanean, ezin gusturago gainera. Farmazian egiten duzun lana asko gustatzen zaizu eta gaixoekin daukazu harremana ere bai. Baina...orain pausu bat aurrera emateko garaia izan daitekeela uste duzu...eta zeure Farmazia -bulegoa ireki! Denbora daramazu ideia bueltaka buruan, baina ez zara guztiz ausartzen. Hala ere, egun batean, Mariarekin hitz egitea erabakitzen duzu. Ez duzu haserretzerik nahi baina...agian zeure bidea hasteko garaia heldu da.

Mariaren erreakzioak ustekabeen harrapatzen zaitu. Ez duzu haserre nabaritzen ezta triste ere zu joango zarela. Gainera, espero ez zenuen berri bat ematen dizu. Erretiroa hartzea pentsatzen egon da eta galdetzen dizu ea hainbeste maite duzun eta hainbeste ordu pasa dituzun farmaziaren agintea hartu nahiko zenukeen. Zer egingo duzu? Zelako dilema!!

c) Ikaskuntzaren baliabideak

- Internet konexioa.
- Irakasleak emandako dokumentazioa.
- Indarreko legeria.

d) Jardueren sekuentzia

4. KORAPILOA. 1. Jarduera	
29-31 egunak	
<i>Zein da farmazian saltzen diren medikamentuek eta gainontzeko produktuek jarraitzen duten bidea dispentsatuak izan aurretik? Zelan kalkulatu behar dugu beren prezioa?</i>	
Presentziala	Metodo inductiboa / Klikerrak
Estimatutako denbora 3 ordu presentzial	
Ebaluazioa Ez da ebaluatzen	

GARAPENA

29. eguna:

1. Zeregina. Egoeraren analisia. Talde handian (klase osoa) egiteko jarduera *brainstorming*-aren bidez. Irakasleak sortzen diren ideiak idazten ditu irakaskuntzaren helburuak definitu arte (20 min).

29-31. egunak:

2. Zeregina. Ikasleek hurrengo jardueretan landuko diren kontzeptuak aldeztu aurretik argi dauzkaten ebaluatzeko klikerrak erabilera. Era berean, 2. zeregin honen bidez medikamentuen eta farmazietan saltzen diren gainontzeko produktuen salmenta prezioa ondo kalkulatzearen garrantziaz hausnartuko da. Izan ere, lortzen den mozkin marjinak enpresaren biziraupena bermatuko du (2.30 ordu, presentzialak).

EBALUAZIOA

Ez da ebaluatzen.

4. KORAPILOA. 2. Jarduera	
32-35 egunak	
Zelan lortu nire Farmazia -bulegorako egiten ditudan erosketetan mozkin marjin handiena?	
Presentziala eta ez presentziala	Ariketen puzzlea, talde iraunkorra
Estimatutako denbora	
4 ordu presentzial eta 4 ordu ez presentzial	
Ebaluazioa	
Taldeko ebaluazio hezigarria eta 1-3. jardueren banakako-taldeko ebaluazio batutzailea	

GARAPENA

32. eguna:

1. Zeregina. Irakasleak jarduera azalduko du, taldeak osatuko dira eta ariketak banatuko dira (13. eranskina) (10 min, klasean).

2. Zeregina. Banaka egiteko lana: 1. Jardueran landutako kontzeptuen aplikazioa esleitutako ariketen ebazpenerako (40 min, klasean).

32. egunetik 33. egunera:

3. Zeregina. Banaka egiteko lana: 1. Jardueran landutako kontzeptuen aplikazioa esleitutako ariketen ebazpenerako (ordu 1, ez presentziala, behar izanez gero).

33. eguna:

4. Zeregina. Adituen bilera. Ariketa mota bakoitzeko adituen taldeak aditu bakoitzaren ebazteko era alderatuko du. Azkenik, adituen artean zuzen dagoen ebazteko metodoa eta emaitza adostu behar da. Adostasunera heltzea posible ez denean, beste adituen talde batekin kontsultatzeko aukera egongo da (ordu 1, ez presentziala).

Adituen bilerarako rolak:

- Hizlaria: Berak ariketak nola ebatzi dituen azaltzen du.
- Galdetzaileak: Argibideak eskatzen dituzte eta iruzkin kritikoak egiten dituzte.
- Idazkaria: Eztabaidarako aurreikusi den denboran burutzen dela ziurtatzen da.

34. eguna:

5. Zeregina. Jatorrizko taldearen bilera. Taldeko kide bakoitzak aurreko egunetan landu dituen ariketak aurkeztuko ditu, adituen taldean adostu denaren arabera, azalduz eta justifikatuz ebazteko jarraitu den metodoa (50 min, klasean eta ordu 1 ez presentziala, beharrezkoa izanez gero).

Talde bilerarako rolak (gai bakoitza eztabaidatzen den heinean txandakaturaz joango diren rolak):

- Hizlaria: Bere ariketak azaltzen ditu.
- Galdetzailea: Argibideak eskatzen ditu eta iruzkin kritikoak egiten ditu.
- Idazkaria: Zeregin honi dagokion denbora ez dela gainditzen ziurtatzen da.

35. eguna:

6. Zeregina. Taldeko ebaluazio hezigarria. Zoriz, talderen baten ordezkaria aukeratuko da ariketen baten ebazpena azal dezan. Ikasleek ariketa mota bakoitza zelan ebatzi behar denaren berehalako *feedback*-a jasoko dute.

12. astea, 39. eguna:

7. Zeregina. Banakako-taldeko ebaluazio batutzailea (eguna 2. Jardueraren hasieran zehaztuko da, ziur aski 12. astearen hasieran egingo da, 39. egunean) (2 ordu ez presentzial 7. zeregina prestatzeko).

EBALUAZIOA

Taldeko ebaluazio hezigarria. 6. Zereginaren bitartez talde bakoitzak egindako ariketak ebatziko dira eta ikasleek berehalako *feedback*-a jasoko dute.

Banakako ebaluazio batutzailea: ebaluazioa indibiduala izango da, izan ere, 1, 2 eta 3. Jarduerari buruz egingo diren galdera batzuk erantzun beharko dira, klasean (50 min). Proba honek, ikasgaiaren 10 puntutik, 1,5 puntuko balioa

izango du. Nota kalkulatzeko bi gauza hartuko dira kontuan, batetik bakoitzak egindako azterketa, eta bestik gainontzeko taldekideek lortutako nota. Ikasle bakoitzaren nota honela kalkulatu da:

Banakako azkenengo nota = $\frac{(1.\text{kidearen nota} + 2.\text{kidearen nota} + 3.\text{kidearen nota})}{3} + \text{banakako nota}$ / 2

4. KORAPILOA. 3. Jarduera	
36-37 egunak	
Medikamentu bat erosterakoan, jasotako zein eskaintza aukeratuko zenuke? Zer beste informazio eztabaidatuko zenuke hornitzalerekin?	
Presentziala eta ez presentziala	GPS, talde egonkorra eta talde handia
Estimatutako denbora 2 ordu presentzial eta 2 ordu ez presentzial	
Ebaluazioa Taldeko ebaluazio hezigarria eta 1-3. jardueren banakako-taldeko ebaluazio batutzailea	

GARAPENA

36. eguna:

1. Zeregina. Irakasleak jardueraren azalpena emango du (14. eranskina) eta taldeen osaera (5 min, klasean).
2. Zeregina. Talde egonkorretan ikasleak ebazten saiatuko dira (10 min, klasean).
3. Zeregina. Arazoaren analisi kualitatiboa eta aldagaien identifikazioa talde handian (10min, klasean). Hipotesia eman aurretik, arazoaren analisi kualitatiboa egin behar dugu enuntziatuan agertzen diren aldagaiak identifikatu ahal izateko.
4. Zeregina. Hipotesi-igorpena eta ebazteko ahalegina, talde handian (25 min, klasean)

36. egunetik 37. egunera:

5. Zeregina. Ebazpena, talde txikietan (ordu 1, ez presentziala).

Galdera eragilea: Zenbatekoa izango da Farmazia -bulegoak lortuko zuen mozkina erosteko eskaintza bakoitzarekin?

37. eguna:

6. Zeregina. Eraitzen analisia (ebaluazio hezigarria) eta hausnarketa, talde handian (50 min, klasean).

12. astea, 39. eguna:

7. Zeregina. Banakako-taldeko ebaluazio batutzailea (eguna 2. Jardueraren hasieran zehaztuko da, ziur aski 12. astearen hasieran egingo da, 39. egunean) (2 ordu ez presentzialak 7. Zeregina prestatzeko).

EBALUAZIOA

Taldeko ebaluazio hezigarria. 6. Zereginaren bitartez ariketa ebatziko da eta ikasleek berehalako *feedback*-a jasoko dute.

Banakako ebaluazio batutzailea (2. Jardueran agertzen den bezalakoa): ebaluazioa indibiduala izango da, izan ere, 1, 2 eta 3. Jarduerari buruz egingo diren galdera batzuk erantzun beharko dira, klasean (50 min). Proba honek, ikasgaiaren 10 puntutik, 1,5 puntuko balioa izango du. Nota kalkulatzeko bi gauza hartuko dira kontuan, batetik bakoitzak egindako azterketa, eta bestik gainontzeko taldekideek lortutako nota.

Ikasle bakoitzaren nota honela kalkulatu da:

Banakako azkenengo nota = $\frac{1.kidearen\ nota + 2.kidearen\ nota + 3.kidearen\ nota}{3} + banakako\ nota$ / 2

4. KORAPILOA. 4. Jarduera	
38 eta 40-42 egunak	
Aurten, urte errentagarria izan al da zure Farmazia -bulegoarentzat?	
Presentziala eta ez presentziala	Induktiboa: Talde txikia, talde handia
Estimatutako denbora	
4 ordu presentzial + 0.5 ordu ez presentzial	
Ebaluazioa	
Taldeko ebaluazio hezigarria era banakako autoebaluazio hezigarria e-gelaren bidez	

GARAPENA

Farmaziaren agintea hartu zenuenetik dagoeneko urtebete pasa da, eta logikoa denez, gauzak ondo egiten ari zaren jakin nahi duzu. Horretarako, zure farmazia -bulegoaren honako datu ekonomiko-finantzarioak dituzu:

A ariketa: Lokalaren balioa 180.000€-koa da, eta urtearen bukaeran hau da farmaziaren egoera: altzariak (10.800€) eta makineria (360€), medikamentuak eta biltegian dauden beste produktuak (24.000€), Gizarte segurantzak zor dio (24.000€) eta bezeroek (600€), farmaziak bankuetxean 12.000€ ditu. Bestetik, farmaziaren kapitala 90.000€-koa da eta irabaziaz 90.960€-koak. Farmaziaren epe luze eta laburreko hornitzaileekiko zorrak 30.000€ eta 15.600€-koak dira, hurrenez hurren. Farmaziak ogasun publikoari 10.800€ zor dizkio eta Gizarte segurantzari 14.400€.

B Ariketa: Lokalaren balioa 90.000€-koa da, eta urtearen bukaeran hau da farmaziaren egoera: altzariak (5.500€) eta makineria (200€), medikamentuak eta biltegian dauden beste produktuak (1.500€), Gizarte segurantzak zor dio (1.200€) eta bezeroek (350€), farmaziak bankuetxean 6.000€ ditu. Farmaziaren epe luze eta laburreko hornitzaileekiko zorrak 16.000€ eta 8.000€-koak dira, hurrenez hurren. Farmaziak ogasun publikoari 5.500€ zor dizkio eta Gizarte segurantzari 7.500€.

Datu hauekin, zure farmazia -bulegoaren egoera ekonomiko-finantzarioaren balorazioa egiteko gai izango zinateke?

38. eguna:

1. Zeregina. Egoeraren analisia eta *brainstorming*-a.

Egoeraren balantzea? Ni farmazialaria naiz! Horrelako gauzak ere jakin behar al ditut?

Zeregin honetan, irakasleak egoeraren analisi laburra egingo du (10 min, klasean). Geroago, talde handian 40 minutuko *brainstorming* saioa egingo da. Irakasleak, agertzen diren ideiak apuntatu eta ordenatuko ditu.

40. eguna:

2. Zeregina. Bikoteetan egiteko lana (50 min, klasean). Zeregin honetarako 4 pertsonetako talde berriak osatuko dira. Taldeko bi kidek A ariketaren datuekin lan egingo dute eta beste biek B ariketaren datuekin. Irakasleak sortu daitezkeen zalantzak argitzen lagunduko die ikasleei eta laguntzeko materiala emango die behar izanez gero.

41. eguna:

3. Zeregina. Adituen bilera (20 min, klasean). Zeregin honetan, A ariketa landu dutenen artean taldeak sortuko dira eta baita B ariketa landu dutenen artean ere, haien artean informazioa trukatzeko.

4. Zeregina. Jatorrizko taldean informazioa partekatu (30 min, klasean). Zeregin honetan talde bereko bi bikoteen arteko informazioaren partekatzea emango da.

42. eguna:

5. Zeregina. Talde txikietan egoera ebazten saiatuko dira eta gero amankomunean jarriko da talde handian. Behin, taldeak bi ariketa ebatzita dituela, egoerari erantzuna ematen saiatuko da (20 min, klasean). Gero, irakasleak zoriz hautatutako kide batek talde handiari azalduko dizkio

lortutako emaitzak eta baita haien interpretazioa ere. Gainontzeko taldeko kideek edo klaseko edonork, hautatuko ikaslearen erantzunak argiak izan ezean, langunduko diote (30 min, klasean).

Ikasle guztiek ariketen ebazpenari buruz beheralako *feedback*-a jasoko dute.

EBALUAZIOA

Taldeko ebaluazio hezigarria. 5. Zereginaren bitartez talde guztiek egindako ariketak ebatziko dira. Beraz, berehalako *feedback*-a emango zaie ikasle guztiei. Gainera, autoebaluazio hezigarria egongo da. Ikasleek e-gelan galdeketa bat izango dute jarduera honetan landutako kontzeptuei buruzko beraien ezagutzak aztertu ahal izateko. Galdeketa 24 orduetan izango dute eskuragarri. (14. astean, 46-47. egunak)

Ebaluazio Irizpideak:

Bikain	Hobetu beharra	Gutxi-Ez aurkeztua
Galdera guztiek ondo erantzuten ditu	Galdera batzuk ondo erantzuten ditu	Ez du galdetegia egiten edo erantzun erdiak txarto erantzuten ditu.

6. KLASEEN KRONOGRAMA

Hurrengo kronogramak korapiloen asteroko garapena eta haien jarduerak etazereginak azaltzen ditu. Klase magistralak ere agertzen dira tartekatuta.

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA
1. ASTEA	Ikasgaiaren aurkezpena. 0,5h	1. Korapiloa.	1. Korapiloa.	1. Korapiloa.
	1. Korapiloa.	1. Korapiloa. 3. Jardueraren		
2. ASTEA (5-8 egunak)	2. Korapiloa. 1. Jarduera.	2. Korapiloa. 2. Jarduera.	2. Korapiloa. 2. Jarduera.	T11.- Legeria farmazeutikorako sarrera
3. ASTEA (9-12 egunak)	2. Korapiloa. 3. Jarduera.	2. Korapiloa. 3. Jarduera.	2. Korapiloa. 3. Jarduera.	2. Korapiloa. 3. Jarduera.
4. ASTEA (13-16)	T12.- Osasun sistema nazionala	3. Korapiloa. 1. Jarduera.	T1.- Enpresa kontzeptua	T2.- Farmazia -bulegoa enpresa bezala
5. ASTEA (17-20)	3. Korapiloa. 2. Jarduera.	3. Korapiloa. 2. Jarduera.	3. Korapiloa. 3. Jarduera.	3. Korapiloa. 3. Jarduera.
6. ASTEA (21-24)	3. Korapiloa. 4. Jarduera.	3. Korapiloa. 5. Jarduera.	3. Korapiloa. 5. Jarduera.	3. Korapiloa. 5. Jarduera.
7. ASTEA	T8.- Kudeaketa eta plangintza lehen arreta eta arreta espezializatuan	T8.- Kudeaketa eta plangintza lehen arreta eta arreta espezializatuan	T9.- Banaketaren kudeaketa eta plangintza	T10.- Industria farmazeutikoaren kudeaketa eta plangintza
8. ASTEA (29-32)	4. Korapiloa. 1. Jarduera.	4. Korapiloa. 1. Jarduera.	4. Korapiloa. 1. Jarduera.	4. Korapiloa. 2. Jarduera.
9. ASTEA (33-35)	4. Korapiloa. 2. Jarduera.	4. Korapiloa. 2. Jarduera.	4. Korapiloa. 2. Jarduera.	
10. ASTEA	ASTE SANTUKO OPORRAK			
11. ASTEA (36-38 egunak)	4. Korapiloa. 3. Jarduera.	4. Korapiloa. 3. Jarduera.	4. Korapiloa. 4. Jarduera.	
12. ASTEA (39-41)	EBALUAZIOA 4. Korapiloa.	4. Korapiloa. 4. Jarduera.	4. Korapiloa. 4. Jarduera.	
13. ASTEA	4. Korapiloa. 4. Jarduera. 5. Zeregina.	T18.- Farmazia -bulego eta botikinen arauketa eta funtzionamendua	T18.- Farmazia -bulego eta botikinen arauketa eta funtzionamendua	
14. ASTEA	T18.- Farmazia -bulego eta botikinen arauketa eta funtzionamendua	T17.- Medikamentuei buruzko informazioa eta promozioa	T19.- Medikamentuen erregistroa	
15. ASTEA (48 eguna)	T20.- Farmazilarien Deontologia			

Hemen ordenadore gelako saio praktiko bakoitzaren iraupena (ordueta) jasotzen da:

	SAIOAK						GUZTIRA
	1.	2.	3.	4.	5.	6.	
Presentzialak	4	3,5	3,5	4	4	3	22 ordu
Ez-presentzialak	1	1	1	1	1	15	20 ordu
Gaia	Rol Jokua. Erosketen kudeaketa	Farmazia - bulegoen irekitzea	Autonomia- erkidego ezberdineko Odenazio Farmazeutikoa	Formula magistralen balioztatzea (2. Korapiloa)	Marketinga eta merchandisinga (3. Korapiloa)	Eztabaida	

7. METODOLOGIA AKTIBOAK LANTZEKO ERABILIKO DEN DENBORA PRESENTZIALA ZEIN EZ-PRESENTZIALA

	1. Korapiloa	2. Korapiloa	3. Korapiloa	4. Korapiloa	GUZTIRA
Gelan, presentzialak	3,5 ordu	7 ordu	9 ordu	13 ordu	32,5 ordu
Praktiketan, presentzialak		4 ordu	4 ordu		8 ordu
Ez- presentzialak	2,5 ordu	8,5 ordu	7 ordu	6,5 ordu	24,5 ordu
Guztira	6 ordu	19,5 ordu	20 ordu	19,5 ordu	65 ordu

8. EBALUATZEKO ENTREGAGAI, JARDUERA ETA AUTO-EBALUAZIOEN ZERRENDA

Oharra: Letra lodiz azpimarratu dira ikasgaiaren ebaluazio jarraituaren barne dauden entregagai eta jarduera batutzaileak.

1. Korapiloa.-

- **3. *Jarduera:*** Bananako ebaluazioarako galdetegi hezigarria e-gela plataformaren bidez.
- **3. *Jarduera.* 5. *Zeregina:*** Taldeko entregagai hezigarria. 3. Eranskina.

2. Korapiloa.-

- **1. *Jarduera.* 3. *Zeregina:*** Taldeko entregagai batutzailea. 4. Eranskina.
- **2. *Jarduera.* 3. *Zeregina:*** Taldeko entregagai batutzailea. 6. Eranskina.
- **3. *Jarduera.* 9. *Zeregina:*** Taldeko entregagai batutzailea. 9. Eranskina.
- **3. *Jarduera:*** Bananako ebaluazioarako galdetegi batutzailea e-gela plataformaren bidez.
- **4. *Jarduera.* 9. *Zeregina:*** Taldeko entregagai hezigarria. (Ordenagailu praktiketako saioa).

3. Korapiloa.-

- **2. *Jarduera.* 5. *Zeregina:*** Taldeko entregagai batutzailea. 12. Eranskina.
- **2. *Jarduera:*** Banakako auto-ebaluaziorako galdetegi hezigarria e-gela plataformaren bidez.
- **4. *Jarduera.* 3. *Zeregina:*** Taldeko aurkezpen batutzailea.
- **5. *Jarduera.* 6. *Zeregina:*** Taldeko aurkezpen hezigarria.
- **5. *Jarduera:*** Banakako ebaluaziorako galdetegi batutzailea e-gela plataformaren bidez.
- **6. *Jarduera.* 6. *Zeregina:*** Taldeko aurkezpen batutzailea. (Ordenagailu praktiketako saioa)
- **6. *Jarduera.* 7. *Zeregina:*** Banakako ebaluaziorako galdetegi batutzailea (Ordenagailu praktiketako saioa)

4. Korapiloa.-

- **1., 2. eta 3. Jarduerak: Banakako-taldeko ebaluazio batutzailea.**
- **2. Jarduera.6. Zeregina:** Taldeko ebaluazio hezigarria.
- **3. Jarduera. 6. Zeregina:** Taldeko ebaluazio hezigarria.
- **4. Jarduera:** Banakako auto-ebaluaziorako galdetegi hezigarria e-gela plataformaren bidez.
- **4. Jarduera. 5. Zeregina:** Taldeko ebaluazio hezigarria.

Ebaluazio jarraituaren entregagaiak eta jarduera batutzaileak (kalifikagarriak), azken notaren %40

1. Banakako-taldeko ebaluazioa, %15
 - Korapiloaren ariketen azterketa, 1., 2. eta 3. Jarduerak
2. Banakakoak, ebaluagarriak, %10
 - Korapiloa, 3. Jarduera, %3.3
 - Korapiloa, 5. Jarduera, %3.3
 - Korapiloa, 6. Jarduera, %3.3
3. Taldekoak, ebaluagarriak, %15
 - 2. Korapiloa, 1. Jarduera, %2.5
 - 2. Korapiloa, 2. Jarduera, %2.5
 - 2. Korapiloa, 3. Jarduera, %2.5
 - 3. Korapiloa, 2. Jarduera, %2.5
 - 3. Korapiloa, 4. Jarduera, %2.5
 - 3. Korapiloa, 6. Jarduera, %2.5

9. ENTREGAGAIEN EDOTA EBALUATZEN DIREN JARDUEREN KRONOGRAMA

Hurrengo kronograman agertzen da zein egunetan entregatu behar diren entregagaiak edo noiz egin behar diren ebaluatzeko jarduerak edota auto-ebaluazioak.

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA
1. ASTEA (1-4 egun)				
2. ASTEA (5-8 egun)				1. Korapiloa. 3. Jarduera. 5. Zeregina. 3. Eranskina.
			1. Korapiloa. 3. Jarduera. Auto-ebaluazioa	
3. ASTEA (9-12 egun)	2. Korapiloa. 1. Jarduera. 3. Zeregina. 4. Eranskina		1. Korapiloa. 1. Jarduera. 1. Zeregina. 1. Eranskina.	2. Korapiloa. 2. Jarduera. 3. Zeregina. 6. Eranskina.
4. ASTEA (13-16 egun)				2. Korapiloa. 3. Jarduera 9. Zeregina. 9. Eranskina.
			2. Korapiloa. 3. Jarduera. Ebaluazioa	
5. ASTEA (17-20 egun)				
6. ASTEA (21-24 egun)	3. Korapiloa. 4. Jarduera. 3. Zeregina. Ahozko aurkezpena.			3. Korapiloa. 5. Jarduera. 6. Zeregina. Poster aurkezpena.
7. ASTEA (25-28 egun)	3. Korapiloa. 2. Jarduera. 5. Zeregina. 12. Eranskina.		3. Korapiloa. 2. Jarduera. Auto-ebaluazioa	
8. ASTEA (29-32 egun)	3. Korapiloa. 5. Jarduera. Ebaluazioa			
9. ASTEA (33-35 egun)				
10. ASTEA				
11. ASTEA (36-38 egun)				
12. ASTEA (39-41 egun)	EBALUAZIOA 4. Korapiloa. 1., 2. eta 3. Jarduerak			
13. ASTEA (42-44 egun)				
14. ASTEA (45-47 egun)		4. Korapiloa. 4. Jarduera. Auto-ebaluazioa		
15. ASTEA (48 eguna)				

10. ERANSKINEN ZERRENDA

Letra lodiz azpimarratu diren eranskinak, erlazionatutako Jarduera edo Zeregina egin beharreko momentuan bertan emango zaizkie ikasleei, ez lehenago.

1. Korapiloa.-

- 1. **Eranskina:** Taldeen eraketaren agiria.
- 2. **Eranskina:** Irteera profesionali buruzko **Check-list-a** adituen bilerarako.
- 3. **Eranskina:** 3. Jardueraren 5. Zereginaren taldeko entregagaia (ez-ebaluagarria).

2. Korapiloa.-

- 4. **Eranskina:** 1. Jardueraren 1. Zereginean landutako medikamentuekin erlazionatutako definizioen taldeko entregagaia (Ebaluagarria).
- 5. **Eranskina:** Gutxiago ikusten diren beste sigla eta ikurrei buruzko informazioa bilatzeko irakasleak emandako dokumentua (2. Jarduera. 2. Zeregina).
- 6. **Eranskina:** Medikamentuen ontziek eta erabilera orriek ematen diguten informazioari buruzko taldeko entregagaia (2. Jarduera. 3. Zeregina) (Ebaluagarria).
- 7. **Eranskina:** 3. Jardueraren 4. Zereginerako euskarri-materiala.
- 8. **Eranskina:** 3. Jardueraren 6. Zereginerako euskarri-materiala.
- 9. **Eranskina:** Osasun agintariak akatsak egoteagatik itzultitako errezeten zuzenketari buruzko taldeko entregagaia (3. Jarduera. 9. Zeregina) (Ebaluagarria).
- 10. **Eranskina:** 4. Jardueraren 4. Zereginerako euskarri-materiala.
- 11. **Eranskina:** 4. Jardueraren 9. Zereginaren auto-ebaluazioa egiteko materiala.

3. Korapiloa.-

- 12. *Eranskina*: Produktu mota eta beren bizitza komertzialeko faseei buruzko taldeko entregagaia (2. Jarduera. 5. Zeregina) (Ebaluagarria)

4. Korapiloa.-

- 13. *Eranskina*: Ebazteko arazoen Puzzlea (2. Jarduera. 1. Zeregina)
- 14. *Eranskina*: GPSaren bidez ebazteko egoeraren enuntziatua (3. Jarduera. 1. Zeregina)

11. ERANSKINAK

1. Korapiloa.-

1. Eranskina_Taldearen eraketaren agiria

IKASGAIA:

NORK IDATZI DU:

BILERA:

Azaldutakoak:

Data:

-

Lekua:

Argazkia

Argazkia

Itxaropenak

Taldearen arauak

Konpromisoak

1. Korapiloa.-

2. Eranskina_Irteera profesionaleri buruzko Check list-a

1. ADITUA: IKERKUNTZAN ARITZEKO, ZER EGIN BEHAR DA?

- Masterrei buruzko informazioa: kredituak, helburua...
- Doktore titulua izateko eman beharreko pausoak: helburua, kredituak...
- Zer da tesia eta nola defendatzen da
- Zer da Nazioarteko doktorego tesia
- Informazio bilatzeko web orrialde interesgarriak eta lege xedapenak

2. ADITUA: IRAKASLE BEZALA LAN EGITEKO, ZER EGIN BEHAR DA?

- Nola antolatzen dira Fakultateak
- Zer dira ANECA eta Unibasq
- Zer egin behar da irakasle izateko unibertsitatean
- Zer kontratu mota daude unibertsitatean irakasle bezala aritzeko (lan kontratuarekin (contratado, 5 mota) edo funtzionario bezala, 2 mota)
- Informazio bilatzeko web orrialde interesgarriak eta lege xedapenak

3. ADITUA: FARMAZEUTIKO BEZALA ARITZEKO, ZER EGIN BEHAR DA?

- Zer da Osasun formakuntza espezializatua
- Zenbat espezialitate daude eta ze Gradu ikasi behar dira aldez aurretik kasu bakoitzean
- Zenbat irauten du espezialitate bakoitzak
- Nolakoa da espezialitateetan sartzeko egiten den azterketa: deialdia, datak gutxi gorabehera, galdera kopurua, azterketaren iraupena, nola kalkulatu da azterketaren banakako nota eta partaide bakoitzaren azken emaitza merezimendu akademikoak kontuan izanda
- Informazio bilatzeko web orrialde interesgarriak eta lege xedapenak

1. Korapiloa.-

3. Eranskina_3.Jarduera_5.Zeregina_Taldeko entregagaia

TALDEKIDEAK:

-
-
-

DATA:

1.- IKERKUNTZARI BURUZ:

- Zenbat kreditu izan ditzakete Graduek? Zenbat ditu Farmaziako Graduek?
- Farmazia Gradua ikasi ondoren, beharrezkoa al da Master bat ikastea Doktorego Programa batean sartu ahal izateko? Azaldu zuen erantzuna.
- Zer da Doktorego tesia eta zertarako egiten da?

2.- IRAKASKUNTZARI BURUZ:

- Zergatik daude Departamentuak Fakultateetan?
- Zer egin behar da Irakasle Laguntzaile (atxikia) bezala lan egiteko unibertsitatean?

3.- ESPEZIALIZAZIOARI BURUZ:

- Non bilatu dezakezue Osasun formakuntza espezializatuari buruzko informazio fidagarriena?
- Farmaziako Gradua ikasita, zein espezialitateetan sartu zaitezke?
- Nolakoa da espezialitateetan sartzeko egiten den azterketa.

2. Korapiloa.-

4. Eranskina_1.Jarduera_3.Zeregina_Taldeko entregagaia

TALDEKIDEAK:

-
-
-

DATA:

TERMINO HAUEN DEFINIZIO OFIZIALA EMAN, ERANTZUN GALDERAK ETA AIPATU, KASU BAKOITZEAN, ZEIN DOKUMENTU OFIZIALEAN IRAKURRI DUZUE

1. Osagai aktiboa
2. Lehengaia
3. Eszipientea
4. Forma galenikoa edo forma farmazeutikoa
5. Medikamentua
6. Giza erabilerarako medikamentua
7. Formula magistrala
8. Prestakin ofizinala
9. Zeintzuk dira medikamentu bereziak?
10. Medikamentu generikoa














11. Medikamentu publizitarioak
12. Faltsututako medikamentuak
13. Osasun produktuak
14. Higiene pertsonalerako produktuak
15. Produktu kosmetikoak
16. Zeintzuk dira mediku preskripzioa behar duten medikamentuak?
17. Zeintzuk dira mediku preskripzioa behar EZ duten medikamentuak?
18. Nola izendatu daitezke medikamentuak?
19. Nola izendatu behar dira medikamentu generikoak?

2. Korapiloa.-

5. Eranskina_2.Jarduera_2.Zeregina_Informazio gehigarria

JAKIN BEHARREKO SINBOLO eta SIGLEN ZERRENDA

- H
- DH
- ECM
- TLD
- MTP
- EC
- EXO
- EFG
- CN
- ASSS
- E
- I

		 Prospektuan
		 Prezinto kupoian
		 Prezinto kupoian
		
		

JAKIN BEHARREKO INFORMAZIOA:

- Begiratu kupoi prezintoan agertzen den informazioa
- Begiratu prospektuetan agertzen den informazioa
- Zer da bisatua? Nola adierazten da?

2. Korapiloa.-

6. Eranskina_2.Jarduera_3.Zeregina_Taldeko entregagaia

TALDEKIDEAK:

-
-
-

DATA:









1. Taldeak lortutako 5 medikamentuen argazkiak jarri eta bertan agertzen diren sinbolo eta siglen esanahiak eman.






2. Prospektuetan agertu beharreko informazio ofiziala bilatu eta hemen jarri. Esan behar duzue ere, zein dokumentutatik lortu duzue informazioa.

3. Kupoi prezintuetan agertu beharreko informazio ofiziala bilatu eta hemen jarri. Esan behar duzue ere, zein dokumentutatik lortu duzue informazioa.

4. 5. Erankinean agertzen diren sinboloen eta siglen esanhaiak eman.

- H
- DH
- ECM
- TLD
- MTP
- EC
- EXO
- EFG
- CN
- ASSS
- E
- I

	Definizioak eman
	
	
	
	
	
	
	
	

	
	
 Prospektuan	
 Prezinto kupoian	
 Prezinto kupoian	

2. Korapiloa.-

7. Eranskina_3.Jarduera_4.Zeregina_Euskarri-materiala

Laguntzarako material gisa, behar izango duzuen informazio gehiena aurkituko duzuen dokumentu legalen (Legeak, Errege Dekretu-Legeak, Errege Dekretuak eta Ordenak) zerrenda daukazue hemen:

Lege xedapenak: Estatua

- Real Decreto 2829/1977, de 6 de octubre por el que se regulan las sustancias y preparados medicinales psicotrópicos, así como la fiscalización e inspección de su fabricación, distribución, prescripción y dispensación.
 - ~~Orden de 25 de abril de 1994, por la que se regulan las recetas y los requisitos especiales de prescripción y dispensación de estupefacientes para uso humano. INDARGABETUA~~
 - Real Decreto 375/2003, de 28 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General del Mutualismo Administrativo
 - Ley 29/2006, de garantías y uso racional de los medicamentos y productos Sanitarios
 - Real Decreto 1030/2006, de 15 de septiembre, por el que se establece la cartera de servicios comunes del Sistema Nacional de Salud y el procedimiento para su actualización.
 - Real Decreto 618/2007, de 11 de mayo, por el que se regula el procedimiento para el establecimiento, mediante visado, de reservas singulares a las condiciones de prescripción y dispensación de los medicamentos.
-
